



Usurbilgo Udala

Data: 2023/02/23

2023KO OTSAILAREN 23AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zapirain
Ainhoa Arrozpide Landa
Itziar Basterrika Unanue
Oskar Santamaria Pikabea
Josune Urkola Larrarte
Carlos Pérez Fraisoli
Andoni Atxega San Sebastian

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ez dira bertaratu: Luken Arkarazo Silva, Mirari Azurmendi Sorazu eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2023ko otsailaren 23an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

1.- 2022KO ABENDUAREN 22KO EZOHIKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek 2022ko abenduaren 22ko ezohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2023KO URTARRILAREN 23TIK OTSAILAREN 17RA.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/02/23

Alkatetzak 2023ko urtarrilaren 23tik otsailaren 17ra bitartean (2023/56-2023/177) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- ZERO ZABOR UDALERRIAK ZIURTATZEKO PROGRAMARA (ZERO WASTE CITIES CERTIFICATION PROGRAMME) ATXIKITZEA.

Joxe Mari Iribarrek irizpena irakurri du.

Josune Urkolak adierazi du ez daudela ados horrelako kidetza batean parte hartzeko, bertan aipatzen dela dio ziurtagiri bat lortzeko lehenengo bertako kide izan behar dela.

Joxe Mari Iribarrek erantzuten dio udalerrri haundiak ere hor daudela.

Ainhoa Arrozpidek adierazi du gaikako bilketan aurrerapauso haundi bat emanda duela Usurbilek, baina uste du prebentzioan pausoak emateko asko lagunduko duela kidetza honek, beste herrietako esperientzietatik asko ikasi baidezakete.

Alkateak gaineratu du ziurtagiri honengatik Udalak urtero 1.500 euro ordainduko dituela, urtean behin Udalari auditoria bat egingo zaiola eta auditoria horrengatik 1.250 euro ordainduko direla.

Batzarkideek, Nekazaritza eta Ingurumena batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.06/2023-0055

AURREKARIAK

2009. urtean Atez Ateko hondakinen bilketa Usurbilgo Udalerrian abiatu zenetik, hondakinen kudeaketan jauzi nabarmena egin eta gaikako bilketa %80-tik gorakoa da. 13 urte dira beraz, hondakinen kudeaketa arduratsu bat bere gain hartu zuenetik Usurbilgo Udalak, eta orduz geroztik, apurka-apurka hobekuntzak egin izan dira, auzokonposta, sortzez besteko ordainketa, Usurbil 0.0 lan programa edo baserri konposta bezala. Hala ere, etengabeko erronka bat da hondakinen kudeaketa, eta ekonomia zirkularra eta trantsizio ekologikoa lehenetsuneko gai bilakatu den une honetan, udal hondakinen kudeaketa bilketa eta tratamendura soilik mugatzea, lan esparru murrizta bihurtu da.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/02/23

Sortzen diren hondakinak, geroz eta konplexuagoak dira, lehentasunezko lan ildo beharko lukeen hondakinen prebentzio lana sarritan ez da aintzat hartzen, eta ekoizleek ez dituzte bere gain hartzen euren produktuek sortzen dituzten hondakinen kudeaketa gastuak. Zaila da, Udal eskumenen baitan, hondakinen kudeaketari behar bezalako erantzun bat ematea, baina aldi berean tokiko erakundeak eragile garrantzitsuak dira hondakinen kudeaketa prozesu osoan.

Horregatik, interesgarria eta beharrezkoa da, tokiko erakundeak Zero Zabor prozesuan murgilduta dauden bestelako erakundeekin elkarlanean jardutea, arazo berdinen aurrean eman daitezkeen erantzun eta irtenbideak ezagutu, partekatu eta hobetzeko asmoz. Ildo horretan, Zero Zabor nazioarteko mugimenduak sustatzen duen Zero Zabor Udalerriak Ziurtatzeko Programa (Zero Waste Cities Certification Programme) abian da Europa mailan eta bertan 24 herrialdetako 30 erakundek parte hartzen dute, guztiek ere “Zero Zabor” eredia bultzatu asmoz.

Zero Zabor Udalerria Ziurtatzeko programa tutoretza- eta aitorten-sistema batean oinarritzen da gaur egun. Programak EBko 400 udalerrirekin lan egiten du, eta horiek konpromisoa hartu dute, gutxienez, zero zaborrerako funtsezko baldintzak betetzeko. Estatu mailan, Zero Zabor Aliantza da Zero Zabor Udalerria Ziurtatzeko Programa koordinatzeaz arduratzen den erakundea. Plataforma honen lidergoa, hurrengo entitateek osatzen dute: Amigos de la Tierra, Ekologistak Martxan, Greenpeace, Retorna, Rezero eta Surfrider. Eta horretaz gain, Zero Zabor Aliantzarekin lerratuta dauden bestelako elkarteak ere egon badaude, adibidez Plastic Free Formentera eta Eivissa, Euskal Herriko Zero Zabor, Zero Waste Canarias, Oceana eta beste asko, pixkanaka mugimenduekin bat egiten dutenak.

Ikusirik Zero Zabor Udalerrien ziurtapena Usurbilgo Udaleko hondakinen kudeaketarekin erabat lerratuta dagoela eta ziurtapenaren bidez, aurrera begira joratu beharreko lan ildoak garatzen lagunduko duela, Zero Zabor Udalerria Ziurtatzeko Programari atxikitzeak hurrengo onurak suposatuko ditu:

- Usurbilen antzeko ereduarekin, Laguntza profesional handiagoa Europa osoko esperientziekin. Babes hau berme izango da plan ezberdinak eraginkorrak izan daitezen baita garaiz eta behar bezala ezar daitezen ere.
- Zero Zabor eta Ekonomia Zirkularraren estrategiak diseinatzeko, aplikatzeko, gainbegiratzeko eta optimizatzeko etengabeko laguntza.
- Usurbilgo lana Europako eta nazioarteko audientzia baten aurrean erakusteko aukera, irudi positiboa eta Usurbilgo Udalerria sektoreko lider gisa onartua izatea (web mintegiak, ikasketa bidaiak, formazioak, etab.)

TXOSTEN TEKNIKOA

Ingurumen eta nekazaritza teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, 2023ko otsailaren 7an eman du gaiaren inguruko txostena. Bertan, Zero Zabor Udalerriak



Usurbilgo Udala

Data: 2023/02/23

Ziurtatzeko Programara (Zero Waste Cities Certification Programme) atxikitzea proposatzen du.

Guzti hau ikusirik, Nekzaritza eta Ingurumena Batzordeak, 2023ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Joxe Mari Iribar eta Oxkar Santamariaren aldeko botoekin, eta Mirari Azurmendiren abstentzioarekin, egindako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Zero Zabor Udalerriak Ziurtatzeko Programara (Zero Waste Cities Certification Programme) atxikitzea.

BIGARRENA: Zero Zabor Udalerriak Ziurtapen-programaren barruan Usurbilgo Udalari eska dakizkiokeen betekizunak eta zereginak betetzeko konpromezua hartzea, horretarako, beharrezko balitz, dagozkion kontratazioak bideratuz.

HIRUGARRENA: Erabaki hau Mission Cero Academy vzw ta Zero Waste Europa entitateei jakinaraztea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zafirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Itziar Basterrika Unanue eta Oskar Santamaria Pikabea.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisoli eta Andoni Atxega San Sebastian.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

4.- 2023KO MARTXOAREN 8RAKO ADIERAZPENA.

Puntu hau diktaminatu gabe dagoenez, hasteko, batzarkideek aho batez gai-zerrendan sartzea berretsi dute.

Alkateak adierazpena irakurri du.

Honela dio batzarkideek aho batez onartu duten adierazpenak:

“2023ko martxoaren 8rako adierazpena



Usurbilgo Udala

Data: 2023/02/23

25 urte baino gehiago igaro dira, Beijineko Adierazpenean eta Ekintza Plataforman, erabakiak hartzerako orduan, gizonen eta emakumeen artean parte-hartze politikoa eta boterearen banaketa orekatua lortzeko nazioarteko akordioa hartu zenetik. Nahiz eta aurrerakuntzak izan diren, munduko herrialde gehienek ez dute genero berdintasunik lortu, eta gutxi batzuk bakarrik ezarri edo bete dituzte sexuen arteko berdintasunean asmo handiko helburuak.

Egungo krisi anitzen testuinguru honetan, gizarte, ekonomia, ingurumen eta gobernantza ereduak birplanteatu nahi dira, berdintasun-arrakalak gutxitzeko asmoarekin, arrakala horiek gizartearen zati handi batentzat handitu direlako eta, batez ere, emakumeentzat. Orain da liderrak izateko garaia, erakundeak eta gizartea eraldatzeko harreman-eredu askoz ere inklusiboagoak, kooperatiboagoak eta sortzaileagoak lortzeko. Sektore anitzeko lankidetzako gobernantza feministaren eredu baterantz aurrera egin behar da, elkar entzutean oinarrituz, baita botere eta erantzukizunen banaketa eta partaidetza-prozesuak abian jartzean ere.

Mugimendu eta talde feministak eta emakumeenak, aniztasunean eta belaunaldien artean, berdintasunaren inguruko hainbat gai salatzen eta eskatzeko mobilizatzen ari dira. Adibidez, arrazakeriaren kontrako justiziatik hasi eta soldata-berdintasuneraino, indarkeriaren amaiera eta emakumeen aurkako diskriminazioa, sexu-jazarpenaren ezabatzea, klimaren aldeko justizia, bakea mantentzea, eta hainbat gehiago.

Emakumeek politikan eta erabakiak hartzerakoan berdintasunean parte hartzea eta lidergoa izatea funtsezkoak dira, 2030an, Garapen Jasangarriaren Helburuak lortzeko. Hala ere, tokiko eremutik orokorrera, emakumeen parte-hartzea mugatua izaten jarraitzen du, alderdi formaletako erabakiak hartzerakoan, besteak beste, politika gaietan, administrazio publikoan, enpresa pribatuetan, unibertsitatean, sindikatuetan, elkarte eta kooperatibetan, eta beste hainbat sektoretan.

Martxoaren 8 honetan, emakumeen nazioarteko egunean, lehentasunezkoa da emakumeen lidergoak sustatzea, gobernantza feministaren eta lidergo partekatuen eredu batetik abiatuta. Era berean, berdintasun arloan erabakiak hartzean, emakumeen parte-hartzea areagotzeko baldintzak sortzearen alde lan egin behar da. Emakumeen parte-hartzea ikuspegi askoz ere zabalago batetik ulertu behar da, ez bakarrik ikuspegi formal edo arauemaitetik. Emakumeek erabakiguneetan parte hartzeko dituzten baldintzak aldatu behar ditugu.

Emakumeen parte-hartzearen alde lan egiteko, beharrezkoa da...

- botere-espazioak partekatzea eta uzteak eragozten dituzten **erresistentziei eta inertziei** aurre egitea. Horretarako, kristalezko sabaiak hautsi behar dira, espazio guztietan, aniztasun osoan eta ikuspegi intersektionalarekin emakumeen presentzia bermatuko duten neurriak ezarri.
- **zaintza-lanen banaketa erantzunkidean** aurrera guztiz egitea, justizia-printzipioa delako eta emakumeen gaitasunak herritartasun osoa egikaritzea mugatzen duelako.
- **zaintza** eta bestelako lan feminizatuen **sektore profesionala** prekarizatuak balioestea, eta sektore horri gizarte-balioa aitortzea, bere baldintzak hobetuz.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/02/23

- emakumeek lidergoetan duten konfiantza, sinesgarritasuna eta eragina mugatzen duten **estereotipo eta aurreiritziei** aurre egitea.
- **emakumeen aurkako indarkeria**-mota guztiak desagerraraztea, baita emakumeen aurkako indarkeria politikoa ere.
- **lidergoan jarduteko praktikak eta moduak** deseraikitzea, besteak beste, menderatzean oinarritutako eredu androzentrikoak, zaintzaren denborak eta erantzukizuna kontuan hartu gabe, emakumeen eta boteretik baztertutako beste kolektibo batzuen talentua eta jakintzak mesprezatuz, eta talde-lana ez baloraturaz.
- **emakumeen eta nesken eskubideak** ikuspegi interseksionala, berritua, erradikala eta eraldatzailea duen agenda feministaren erdigunean jartzea, emakume horiek boterean duten bazterketa sistematikoari aurre egiteko eta desberdintasun-arrakalak murrizteko.

Horregatik, euskal udalerririk, gure eskumenen markoan, **konpromisoa hauek hartzen ditugu**: emakumeen lidergoa bultzatzea eta boterea berdintasunean egikaritzeko baldintzak erraztea. Estamentu publiko eta probatu guztietan emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea sustatzen duten politikak indartzea da helburua, martxoaren 3ko 1/2022 Legean, Emakume eta Gizonen berdintasunerako legearen bigarren aldatetari buruzkoan, ezarritakoaren arabera:

1. Emakumeen Etxeak sortzeko prozesu parte-hartzailearekin jarraitzea eta proiektua sendotzea.
2. Ahalduntze programak eta eskolak baliabide eta leku egokiez hornitzen jarraitzea.
3. Mugimendu feministaren eta emakume-elkarteen parte-hartzea indartzea, emakumeen/berdintasunaren tokiko kontseiluetan, erabaki partekatuak hartzeko konpromiso sendo batetik abiatuta.
4. Berdintasun-planen interseksionalitatea indartzea gure gizartea osatzen duten eremu guztietan, emakumeek beraien aniztasunean duten parte-hartze osoa eta eraginkorra finkatzera iristeko.
5. Adinaren eta generoaren arabera berezitateko datuak sortzea, 1/2022 Legearen aginduak dakarrena kontuan hartuz, neskatilen, neska nerabeen eta emakumeen bizitzetan eragin zuzena izango duten politikak egiteko informazioa emateko.
6. Politikan sartzen diren emakumeentzako ikaskuntza- eta ahalduntze-guneak antolatzea, emakume hautetsien arteko laguntza-, elkartasun- eta aliantza-sareen bidez, adibidez, Basqueskola Sarea, edo beste sare batzuk.
7. EUDEleri eskatzea, indarkeria politikoari aurre egiteko protokoloak proposa ditzala, emakumeen parte hartzeari eta erabakitzeko gaitasunari buruzko ikerketa bultzatzea eta ordezkaritza orekatu baterantz egiten diren aurrerapenak babes ditzala.”



Usurbilgo Udala

Data: 2023/02/23

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zampirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Itziar Basterrika Unanue, Oskar Santamaria Pikabea, Josune Urkola Larrarte, Carlos Pérez Fraisoli eta Andoni Atxega San Sebastian.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

5.- GALDERA ETA ESKAERAK.

Ez dago.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:20ean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.